



HONDARRIBIKO UDALA

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIK  
2013KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO  
EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hamahiruko abenduaren hemeretziari, Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udaltzatza bildu da Aitor Kerejeta Cid Jaun **Alkate-Udalburuaren Lehendakari** eta ondoren aipatzen diren **Udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**

Juan Maria Altuna Muñoa jna.  
Txomin Sagarzazu Ancisar jna.  
Lupe Olaskoaga Susperregi and.  
Amaya Gezala Ortiz and.  
Maite Pelaez Arregi and.

**eta Zinegotziak:**

Juan Luis Silanes Agirre jn  
Katrín Martínez De la Valle and.  
Jon Mikel Garmendia Múgica jna.  
Catherine J.A. Noblia Richard and.  
Jesus Ignacio Alvarez Yeregui jn.  
Ramon Laborda Larzabal jna.  
Ion Elizalde Caballero jna.  
Jose Miguel Ochoteco Aguirre jna, 1go puntuaren eztabaidan bilkuratik joan dena.

Kattalin Fagoaga Iturralde Udaltzatzaile  
Andrea ere bertan izan izan da.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoak burutu dute bederatzi ordu eta bost minutuan ni, Maria Luisa Izquierdo Marculeta Andrea, Udaltzatzaile Idazkaria lagun nautelarik.

Jarraian, ondoko Zerrendan agertzen diren Gaiak aztertu dira:

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA  
CELEBRADA POR EL EXCMO.  
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE  
HONDARRIBIA EL DIA 19 DE DICIEMBRE  
DE 2013**

En la Ciudad de Hondarribia a diecinueve de diciembre de dos mil trece, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Aitor Kerejeta Cid y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D. Juan María Altuna Muñoa  
D. Txomin Sagarzazu Ancisar  
D<sup>a</sup> Lupe Olaskoaga Susperregi  
D<sup>a</sup> Amaya Gezala Ortiz  
D<sup>a</sup> Maite Pelaez Arregi

**y de los Concejales y Las Concejales Sres./as.:**

D. Juan Luis Silanes Agirre  
D<sup>a</sup> Katrín Martínez De la Valle  
D. Jon Mikel Garmendia Múgica  
D<sup>a</sup> Catherine J.A. Noblia Richard  
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui  
D. Ramon Laborda Larzabal  
D. Ion Elizalde Caballero  
D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre, el cual abandona la sesión durante el debate del punto nº1

Asiste, asimismo, la Sra. Interventora del Ayuntamiento, D<sup>a</sup> Kattalin Fagoaga Iturralde.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las nueve horas y cinco minutos, asistidos/as de mí, la Secretaria, D<sup>ña</sup>. María Luisa Izquierdo Marculeta.

A continuación, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

## OGASUN, ONDARE ETA KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA

### 1.-2014KO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

2014rako Hondarribiko Udaleko Aurrekontu Kontsolidatua onartzeko irekitako espedientea aztertuta, **AURREKONTUAREN** kopurua **HAMASEI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EUROKOA (16.933.769,00)** izanik, honela banatuak:

- Udalari dagozkionak: 16.614.769,00€
- Hondarribia Lantzen, S.A.ri dagozkionak: 282.000,00€
- Arma Plaza Fundazioari dagozkionak: 272.000,00€

Udal Kontuhartzaileak 2013ko abenduaren 12an egindako ekonomi eta finantza txostena ikusi da, aurrekontu egonkortasunari eta aurrekontuaren finantza iraunkortasunari buruzkoa, hitzez hitz hauxe dioelarik:

*“Onarpenerako aurkezten den 2014ko aurrekontu proiektuak bete egiten du 2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ezarritako helburuak, ondoren adierazten den moduan:*

**Aurrekontuen egonkortasuna (11.4 art.).** Aurrekontu proiektuak orekatua aurkezten da, SEC Europako Kontuen Sistemaren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusen ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarriak, kalkulu hori sarreraren 1etik 7ra bitarteko kapituluaren eta gastuen 1etik 7ra bitarteko kapituluaren arteko diferentziarekin parekatu da, modu kontsolidatuan. Kontsolidazioa egiteko, udalaren eta Arma Plaza Fundazioaren sarrera eta gastu aurreikuspenak hartu dira kontuan. Hori dela eta, aurrekontu proiektuak bete egiten du defizit helburua.

## COMISIÓN DE HACIENDA, PATRIMONIO Y ESPECIAL DE CUENTAS

### 1.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL PARA EL AÑO 2014.

Examinado el expediente incoado para la aprobación del Presupuesto consolidado del Ayuntamiento correspondiente al año 2014, cuyo importe asciende a **DIECISEIS MILLONES NOVECIENTOS TREINTA Y TRES MIL SETECIENTOS SESENTA Y NUEVE (16.933.769,00) EUROS**, de los cuales corresponden:

- Al Ayuntamiento: 16.614.769,00€
- A Hondarribia Lantzen S.A. 282.000,00€
- A Arma Plaza Fundazioa 272.000,00€

Visto el informe económico-financiero emitido por la Interventora Municipal de fecha de 12 de diciembre de 2013, en relación a la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera del presupuesto, cuyo tenor literal es el siguiente:

*“El proyecto de presupuesto para 2014 que se somete a aprobación si cumple los objetivos establecidos por la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, de acuerdo con las siguientes consideraciones:*

**Estabilidad presupuestaria (art.11.4).** El proyecto de presupuesto esta equilibrado, en términos del Sistema Europeo de Cuentas (SEC). A estos efectos, dado que no se prevén operaciones significativas que exijan un ajuste posterior, dicho cálculo se ha efectuado como diferencia entre las previsiones de ingresos de los capítulos 1 a 7, y las previsiones de gastos de los capítulos 1 a 7, y todo ello en términos consolidados. En dicha consolidación se han incluido las previsiones de ingresos y gastos del ayuntamiento y de la Fundación Arma Plaza. Por ello, el proyecto de presupuesto si cumple el objetivo de déficit.

**Finantzen iraunkortasuna** (13. art.) Ministroen Kontseiluak 2012ko uztailaren 20an hartutako akordioaren arabera, udal entitateen zor biziak, guztira, 2013-2015 epealdiko urte bakoitzean, ezingo du gainditu BPGaren %3,8. Ez dago, ordea, estatistika ofizialik BPGa udalez udal xehatzen duenik. Horregatik, horren balioespena egin da Autonomien eta Udalen Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak 2012ko maiatzaren 22an bidalitako zirkularrean oinarrituta. Zirkular horretan BPGaren %0,3 eta sarrera ez finantzarioen (1etik 7ra bitarteko kapituluak) %4,39 parekidetzat jotzen dira. Beraz, BPGaren %3,8 eta sarrera ez finantzarioen %55,61 ere parekidetzat jo litezke. Hori hala izanik, udalaren eta bere organismo autonomoen zor bizia, emandako abalena ere kontuan hartuta, zero eurokoa denez, hau da, sarrera ez finantzarioen % 0a, aurrekontu proiektuak bete egiten du zorraren helburua.

**Gastu ez finantzarioaren muga** (30. art.) 2014rako, gastu ez finantzarioaren muga 18.433.532,88 eurokoa da. Zenbateko hori ondoko kalkuluaren arabera zehaztu da, eta bere barruan hartzen du epe ertainean BPGaren hazkundearen erreferentzi tasa %1,5 izango dela:

2013ko aurrekontuaren likidazioa gastu ez finantzarioa (kap: 1etik 7ra):

- 2014ko interesak:  
- Finantzaketa lotua duen gastua 2013an:  
= 2013ko gastu konputagarria:  
x BPGaren hazkundearen erreferentzi tasa (%1,5): 1,015  
= 2014ko gastu konputagarria: 18.433.532,88 €  
+ 2014ko interesak:  
+ Finantzaketa lotua duen gastua 2014an:  
+ Araudian egindako aldaketen eragina (12.4 art.):  
= 2014ko gastu ez finantzarioaren muga:  
**19.488.266,28 €**

2014ko aurrekontu proiektuaren gastu ez finantzarioa, guztira, 16.594.769 eurokoa da. Zenbateko horrek ez duenez gainditzen lehen kalkulaturako gastu ez finantzarioaren muga,

**Sostenibilidad financiera** (art. 13). Según Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2012, el volumen de deuda viva del conjunto de las entidades locales no podrá rebasar el 3,8% del PIB en cada uno de los años del periodo 2013-2015. Dado que no existen estadísticas oficiales que desagreguen el PIB a nivel municipal, se ha realizado una estimación en base a la equivalencia recogida en la circular de la Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local de 22 de mayo de 2012. En dicha circular se equiparaba el 0,3% del PIB con el 4,39% de los derechos reconocidos correspondientes a los ingresos no financieros (capítulos 1 a 7). En base a ello, el 3,8% del PIB se puede equiparar al 55,61% de dichos ingresos no financieros. Pues bien, la deuda viva del ayuntamiento y sus organismos autónomos, incluida la correspondiente a los avales concedidos, asciende a 0 euros, lo cual representa el 0% de dichos ingresos no financieros. Por ello, el proyecto de presupuesto si cumple el objetivo de deuda.

**Limite de gasto no financiero** (art. 30). El límite de gasto no financiero para 2014 se fija en 18.433.532,88 euros, resultante del siguiente cálculo, que incorpora una tasa de referencia de crecimiento del PIB de medio plazo del 1,5%:

Gasto no financiero liquidacion presupuesto 2013 (cap. 1 a 7):

- Intereses 2013:  
- Gastos con financiación afectada 2013:  
= Gasto computable 2013:  
x Tasa de referencia de crecimiento del PIB (1,5%):  
1,015  
= Gasto computable 2014: 18.433.532,88 €  
+ Intereses 2014:  
+ Gastos con financiación afectada 2014:  
+ Efecto cambios normativos (art. 12.4):  
= Total límite gasto no financiero 2014:  
**19.488.266,28 €**

El total del gasto no financiero del proyecto de presupuesto 2014 asciende a 16.594.769 Dado que dicha cifra no supera el límite del gasto no financiero anteriormente calculado, el proyecto

aurrekontu proiektuak bete egiten du gastuaren erregela”.

de presupuesto si cumple la regla de gasto”.

Era berean Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak 2013ko abenduaren 12an egindako diktamena ikusi da; bertan Udaltzari zera proposatzen dio EAJren aldeko botoekin, aurkakorik gabe eta BILDU, PSE PP eta H1en abstentzioarekin, 2014ko Aurrekontu Orokorra onartzea, horren laburpena hau delarik:

Visto asimismo, el dictamen de la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio de 12 de diciembre de 2013, proponiendo al Ayuntamiento Pleno, con los votos a favor de PNV, nadie en contra y la abstención de BILDU, PSE, PP y H1, la aprobación del Presupuesto General del año 2014 cuyo resumen es el siguiente:

### **2014ko GASTUEN EGOERA/ ESTADO DE GASTOS DEL 2014**

<b>UDALA/ AYUNTAMIENTO</b>	<b>UDALA/ AYUNTAMIENTO</b>	<b>HBIA L. SA</b>	<b>ARMA PLAZA FUNDAZIOA</b>	<b>DENETARA/ TOTAL</b>
1.-PERTS.GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	6.083.114,40	0,00		6.083.114,40
2.-ONDA.A ETA ZERB EROSKETA / COMPRA DE BIENES Y SERVICIOS	7.208.729,07	282.000,00	272.000,00	7.762.729,07
3.-FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	2.500,00	0,00		2.500,00
4.-TRANSF. ARRUNTAK / TRANS. CORRIENTES	2.783.044,11	0,00		2.783.044,11
Arma Plaza Fundazioari transferentzia				-235.000,00
6.-INBERTSIO ERREALAK / INVER. REALES	469.025,00	0,00		469.025,00
7.-KAPITAL TRANSF. / TRANS. DE CAPITAL	48.356,42	0,00		48.356,42
8.-FINANTZA AKT./ACT. FINANCIEROS	20.000,00	0,00		20.000,00
9.-FINANTZA PAS. / PAS. FINANCIEROS	0,00	0,00		0,00
<b>DENETARA/ TOTAL</b>	<b>16.614.769,00</b>	<b>282.000,00</b>	<b>272.000,00</b>	<b>16.933.769,00</b>

### **2014ko SARREREN EGOERA/ ESTADO DE INGRESOS DEL 2014**

<b>UDALA/AYUNTAMIENTO</b>	<b>UDALA/ AYUNTAMIENTO</b>	<b>HBIA L. SA</b>	<b>ARMA PLAZA FUNDAZIOA</b>	<b>DENETARA / TOTAL</b>
1.-Z. ZUZENAK /I. DIRECTOS	6.336.141,00	0,00		6.336.141,00
2.-ZEHARKAKO Z./I. INDIRECTOS	60.000,00	0,00		60.000,00
3.-TASAK ETA BESTE SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	1.177.239,00	0,00	12.000,00	1.189.239,00
4.-TRANSF. ARRUNTAK/ TRANSF. CORRIENTES	8.976.436,00	0,00	260.000,00	9.236.436,00
Arma Plaza Fundazioari transferentzia				-235.000,00
5.-ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATR.	44.953,00	282.000,00		326.953,00
6.-BEST. INB. ERREALAK /ENAJ. INV. REALES	0,00	0,00		0,00
7.-KAPITAL. TRANSF/TRANS. DE CAPITAL.	0,00	0,00		20.000,00
8.-FINANTZA AKT./ACT. FINANCIEROS	20.000,00	0,00		0,00
9.-FINANTZA PAS. /PAS. FINANCIEROS	0,00	0,00		0,00
<b>DENETARA/TOTAL</b>	<b>16.614.769,00</b>	<b>282.000,00</b>	<b>272.000,00</b>	<b>16.933.769,00</b>

Udal taldeek ondoren zerrendaturik datozen emendakin partzialak aurkeztu dituzte:

Habiendo sido presentadas por diferentes grupos municipales, las enmiendas parciales que a continuación se relacionan:

1.- PSE-EE (PSOE) UDAL TALDEAK 2013ko abenduaren 13an AURKEZTUTAKO EMENDAKIN PARTZIALAK, 8271-8278, 8280-8295 SE zk. dutenak, gai hauei buruz:

.-8271 SE zkia: Mugikortasuna: Proposatzen duen partida: 25.000 euro.

.- 8272 SE zk. duen emendakina: Zaldunborda-Txiplau aztertzea, Hondarribian industria gunea jartzeko. 10.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8273 SE zk. duen emendakina: Mendelurako proiektu osoa: 50.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8274 SE zk. duen emendakina: Memoria historikoa: 12.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8275 SE zk. duen emendakina: Mendelu birgaitzeko inbertsioa: 200.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8276 SE zk. duen emendakina: Madalengaineko eskailerak konpontzea: 25.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8277 SE zk. duen emendakina: Eskudela Zubimusuko errekan: 15.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8278 SE zk. duen emendakina: Komun publikoak: 100.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8280 SE zk. duen emendakina: espaloi eta parkeak konpontzeko inbertsioa: 50.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8281 SE zk. duen emendakina: Damarrin beste igogailu bat jartzea. 30.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8282 SE zk. duen emendakina: gazteentzako alokairu politikak: 200.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8283 SE zk. duen emendakina: Zumardia berreskuratzea: 15.000 euroko partida proposatzen du.

1.- ENMIENDAS PARCIALES PRESENTADAS el día 13 de diciembre de 2013, POR EL GRUPO MUNICIPAL PSE-EE (PSOE), RE nº 8271-8278, 8280-8295, relativas a:

.-Enmienda RE nº 8271: Movilidad: Propone una partida de 25.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8272: Estudio de Zaldunborda-Txiplau-Zubieta como tejido industrial en Hondarribia: Propone una partida de 10.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8273: Proyecto integral de Mendelu: Propone una partida de 50.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8274: Memoria histórica: Propone una partida de 12.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8275: Inversión de rehabilitación de Mendelu: Propone una partida de 200.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8276: Arreglo de escaleras de Madalengain: Propone una partida de 25.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8277: Barandilla de la regata de Zubimusu: Propone una partida de 15.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8278: Servicios públicos: Propone una partida de 100.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8280: Inversión en arreglo de aceras y parques: Propone una partida de 50.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8281: Segundo ascensor Damarri: Propone una partida de 30.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8282: Políticas de alquiler para jóvenes: Propone una partida de 200.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8283: Recuperación del a Alameda: Propone una partida de 15.000 euros.

.- 8284 SE zk. duen emendakina: familientzako laguntza, alokairua, ura, argia etab. ordaintzeko. 100.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8285 SE zk. duen emendakina: familiei laguntzeko politikak, etxebizitzak birgaitzeko: 200.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8286 SE zk. duen emendakina: Hondarribiko Baratzak saneatzeko proiektua: 6.000 euroko inbertsioa proposatzen du.

.- 8287 SE zk. duen emendakina: Gizarte Larrialdia: 125.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8288 SE zk. duen emendakina: Hondarribirako lanbide politika aktiboak: 100.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8289 SE zk. duen emendakina: Mendelun, Zumardian eta Soroetan gizarte eta kultur alorreko jarduerak sendotzea. 25.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8290 SE zk. duen emendakina: Sup Skolarako hondartza jarduerak laguntzea: 15.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8291 SE zk. duen emendakina: auditorioko atzeko aretoa egokitzea erakusketa gela izateko. 12.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8292 SE zk. duen emendakina: gazteei ostalaritza formazioa ematea: 10.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8293 SE zk. duen emendakina: industria pabiloiak alokatzeko laguntza ekileei begira: 10.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8294 SE zk. duen emendakina: pertsoniei laguntzeko programa, batez ere 45 urtetik gorako emakumei, lan munduan gizarteratzeko. 15.000 euroko partida proposatzen du.

.- 8295 SE zk. duen emendakina: lurak alokatzeko laguntza ekile ekologikoentzat. 10.000 euroko partida proposatzen du.

.- Enmienda RE nº 8284: Ayudas a familias para alquiler, agua, luz: Propone una partida de 100.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8285: Políticas de ayuda a las familias para la rehabilitación de viviendas: Propone una partida de 200.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8286: Proyecto de saneamiento de las huertas de Hondarribia: Propone una partida de 6.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8287: Emergencia social: Propone una partida de 125.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8288: Políticas activas de empleo para Hondarribia: Propone una partida de 100.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8289: Reforzamiento de actividades socioculturales en los diferentes barrios de Mendelu, Alameda y Soroeta. Propone una partida de 25.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8290: Apoyo de actividades en la playa para Sup Skola: Propone una partida de 15.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8291: Adecuación sala trasera del auditorio como sala de exposiciones: Propone una partida de 12.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8292: Formación jóvenes en la hostelería: Propone una partida de 10.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8293: Ayuda para alquiler de pabellones industriales para emprendedores: Propone una partida de 10.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8294: Programas de apoyo a personas, sobre todo mujeres, mayores de 45 años para su integración en la vida laboral: Propone una partida de 15.000 euros.

.- Enmienda RE nº 8295: Ayuda para alquiler de terrenos para emprendedores ecológicos: Propone una partida de 10.000 euros.

2.- BILDU UDAL TALDEAK 2013ko abenduaren 16an AURKEZTUTAKO EMENDAKIN PARTZIALAK, 8314-8322 SE zk. dutenak, gai hauei buruz:

.-8314 SE zkiko emendakina: Enplegu plana: Proposatzen duen partida: 300.000 euro.

.-8315 SE zkiko emendakina: Arma Plaza Fundazioa: Proposatzen duen partida: 130.000 euro.

.-8316 SE zkiko emendakina: Mendelu auzoa: Proposatzen duen partida: 500.000 euro.

.-8317 SE zkiko emendakina: Memoria historikoa-Aranzadi: Proposatzen duen partida: 6.000 euro.

.-8318 SE zkiko emendakina: Basterretxearen obra: Proposatzen duen partida: 90.000 euro.

.-8319 SE zkiko emendakina: Lorezaintza: Proposatzen duen partida: 350.000 euro.

.-8320 SE zkiko emendakina: Amute auzoa: Proposatzen duen partida: 8.000 euro.

.-8321 SE zkiko emendakina: Komunak: Proposatzen duen partida: 100.000 euro.

.-8322 SE zkiko emendakina: Hiribilduko hirien sarea: Proposatzen duen partida: Urteroko kuotaren ordainketa ez, -2.000 euro.

Alkate jaunak hartu du hitza eta azaldu du zein testuingurutan egin zen aurrekontua. Esan du aurreko urteen aldean, eta krisia hasi denez geroztik, lehenengo aldia dela aurrekontua igo dena, gutxi bada ere. Esan du diru-sarrerei dagokienez gaur egungo egoera 2003-2005 urteekin alderatu litekeela, eta nahiz eta hamarkada bat igaro den, diru-sarrerak ia orain dela hamar urtekoak direla. 2007-2008 urteetatik aurrekontuak behera egin du.

Aurrekontuaren azalpenarekin jarraituz, lehen atala aipatu du: 6 bat milioi eurokoa da, aurrekontuaren %36, eta krisia baino lehen berriz, atal hori aurrekontuaren %22 zen. Bigarren atala aurrekontuaren %43 da, 7,2 milioi euro, eta laugarren

2.- ENMIENDAS PARCIALES PRESENTADAS el día 16 de diciembre de 2013, POR EL GRUPO MUNICIPAL BILDU, RE nº 8314-8322, relativas a:

.-Enmienda RE nº 8314: Plan de Empleo: Propone una partida de 300.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8315: Arma Plaza Fundazioa: Propone una partida de 130.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8316: Mendelu Auzoa: Propone una partida de 500.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8317: Memoria histórica-Aranzadi: Propone una partida de 6.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8318: Una obra de Basterretxea Propone una partida de 90.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8319: Jardinería: Propone una partida de 350.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8320: Amute auzoa: Propone una partida de 8.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8321: Servicios públicos: Propone una partida de 100.000 euros.

.-Enmienda RE nº 8322: Red de Ciudades Medievales Propone que no se realice la aportación anual de 2.000 euros.

Toma la palabra el Sr. Alcalde que explica el contexto en el que se ha confeccionado el presupuesto. Dice que en comparación con los últimos años y desde el comienzo de la crisis, es la primera vez que el presupuesto ha subido, aunque sea poco. Añade que en lo que se refiere a ingresos, la situación actual se podría comparar con la de los años 2003-2005, y que aun cuando ha transcurrido una década, los ingresos son casi los mismos que hace diez años. Desde los años 2007-2008, el presupuesto ha ido en descenso.

Continuando con la explicación del presupuesto, cita el primer capítulo que asciende a unos 6 millones de euros, el 36% del presupuesto, cuando antes de la crisis, este capítulo suponía el 22% del presupuesto. El segundo capítulo corresponde al 43%, 7,2

atala, berriz, aurrekontuaren %17, 2,8 miloi euro. Esan du krisia hasi zenean Udalak ez zuela zorrik, eta espero duela krisitik ere zorrik gabe ateratzea. Bere iritziz Udalak etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko gaitasuna du, eta bere ustez Hondarribiko Udala egoera onean dago.

Bestetik gizarte zerbitzuen alorra aipatu du, berarentzat garrantzizkoa baita, izan ere gizarte gaietarako dirua ez da krisi garaian murriztu, handitu baizik. Esan du ahalik eta diru gehiena jarri dela gizarte zerbitzuetarako, eta bere ustez helburua bete dela. Esan du Udalaren egoera ekonomikoa ez dela txarra, baina arduraz kudeatu behar dela eta ezin dela arin jokatu.

Esan du Udalak bete beharreko betekizun batzuk dituela, baina ezin dela denetara iritsi; Udalak eskumen batzuk ditu, eta horietarako dirua jarri behar du. Ezin du bere eskumenekoak ez diren gaietarako dirua jarri, eta jarriko balu, ezin izango lieke bere ardurako gaietara eutsi. Abiapuntua beti ez dagoen dirua ez gastatzea da, eta datozen urteetan bide bera jarritu nahi da.

Esan du 2008 urtetik Udalak 6 milioi gutxiago dituela diru-sarreretan, oso kopuru handia, eta kontuan izan behar dela.

Gainera esan du datozen urteetan inbertsio handiak egingo direla, besteak beste ikastetxeetan obra eta birmoldaketak, edo Muliaten ikastetxe berri bat, eta horren proiektua Eusko Jaurlaritzarekin adostu nahi dela. Beste inbertsio garrantzitsu bat Minasoroeta hiritartzea izango litzateke: Santa Engrazia eta Zumardiaren arteko kalea. Horrez gain Puntaleko futbol zelaia txukundu nahi da, eta Mendeluko Zubimusu ibaia ere bai. Ibaiak arazo asko sortu dizkio auzoari, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamentuarekin hitz egin da; asmoa ibaiaren ibilbidea aldatzea da: eremu hori berreskuratzea,

millones de euros, y el cuarto capítulo, 17%, corresponde a 2,8 millones de euros. Añade que cuando se inició la crisis, el Ayuntamiento no tenía deudas y que espera salir de la crisis también sin deudas. En su opinión, el Ayuntamiento tiene capacidad para afrontar las inversiones del futuro y considera que el de Hondarribia es un Ayuntamiento saneado.

También hace referencia al ámbito de los servicios sociales, el cual considera como importante, pues el dinero destinado a fines sociales no se ha visto reducido en lo que ha durado la crisis, justo al contrario. Dice que se ha destinado todo el dinero posible a los servicios sociales y cree que el objetivo propuesto se ha cumplido. Añade que la situación económica del Ayuntamiento no es mala, pero que hay que gestionarla con responsabilidad y que no se puede actuar a la ligera.

Continúa diciendo que el Ayuntamiento tiene unas obligaciones que cumplir, pero que no puede llegar a todas; el Ayuntamiento tiene unas competencias y tiene que destinar el dinero a ellas. No puede poner dinero en asuntos que no son de su competencia, y si lo hiciera, no podría cumplir con temas que son de su responsabilidad. El punto de partida siempre ha sido el de no gastar lo que no se tiene, y en los próximos años se pretende seguir el mismo camino.

Añade que desde el año 2008, el Ayuntamiento cuenta con 6 millones de euros menos en ingresos, una cantidad muy importante, y que hay que tenerlo en cuenta.

También destaca que en los próximos años se realizarán grandes inversiones como pueden ser las obras y remodelaciones en centros escolares, o la creación de un nuevo centro escolar en Muliata, cuyo proyecto se pretende acordarlo con el Gobierno Vasco. Otra inversión importante sería la de la urbanización de Minasoroeta; la adecuación de la calle que discurre entre Santa Engracia y la Alameda. También está previsto adecuar el campo de fútbol del Puntal y otro de los proyectos también sería la del río de Zubimusu de Mendelu. El río ha provocado numerosos problemas al barrio y se ha



zikin eta kutsatuta baitago, eta horretaz baliatzea Hondarribia eta Irunen artean bidegorri bat egiteko.

Esan du Mendelu berra eta Gibeletako argiteria aldatu nahi dela, gaur egungo baldintzetara egokitzeko, bizilagunekin duela urte batzuk hartutako konpromisoari erantzuteko. Botika baserriaren inguruan abiadura moteltzeko osagaiak jarriko dira, Amute eta zubiaren arteko eremua konponduko da, eta Mikelenea eta Txomiñenearen arteko bidea ere konponduko da. Proiektu gehiago ere aipatu ditu, besteak beste Zubieta-Urdanibiako Plan Partziala egitea (horretarako dei publikoa egiten die Eusko Jaurlaritzari eta Aldundiari), izan ere bere ustez ez da proiektu garestia, baina bai beharrezkoa dela tresna.

Jarraitu du esanez Portuko Proiektuaren bosgarren fasea ere burutu nahi duela; horrez gain partida bat jarri nahi da Donostia kaleko aparkalekuaren azterketa egiteko.

Enpleguaren gaiari dagokionez, esan du aurre hausnarketa bat egin nahi lukeela, eta ahal den errealistena izan behar dela. Esan du Udalatik saia daitekeela herriko enpleguaren gaia hobetzen, baina ezin direla mezu handinahiak eman, itxaropen faltsuak ez sortzeko. Kontuan hartu behar dira Udalak gai horri dagokienez dituen eskumenak. Udalak enplegu politiketarako egingo dituen ekarpenei dagokionez, enplegurako zuzenean 700.000 euro jarriko dira. Osagai nagusiak Hondarribia Abian eta Bidasoa Bizirik izango dira, baina badaude beste zenbait proiektu, adibidez eraikinak birgaitzea, eraikinak birgaitzeko diru-laguntzak, edo Zubietako proiektua.

Horiez gain Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plana aipatu du, hau da, merkataritzarako lokalak irekitzea. Helburua Hirigune Historikoan irekiko diren lokalak hobetzeko diru-laguntzak ematea da. Hala, Alde Zaharra denda berriekin berpiztuko da eta enplegua

hablado con el Departamento de Medioambiente del Gobierno Vasco, y lo que se pretende es modificar el recorrido del río, recuperar ese terreno porque está bastante sucio y contaminado, y aprovecharlo para llevar a cabo un bidegorri entre Hondarribia e Irun.

Añade que se prevee modificar el alumbrado en Mendelu Berra y Gibeleta y adaptarlo a las condiciones actuales, en respuesta al compromiso adquirido años atrás con los vecinos. En las inmediaciones del caserío Botika se colocarán elementos para moderar la velocidad, se arreglará el espacio entre Amute y el puente y también está contemplada la reparación del camino entre Mikelenea y Txomiñenea. Sigue enumerando los proyectos entre los cuales se encuentra la realización del Plan Parcial Zubieta-Urdanibia, para lo cual hace un llamamiento público al Gobierno Vasco y a la Diputación, pues considera que no se trata de un proyecto costoso y sí de una herramienta necesaria.

Continúa diciendo que también se pretende llevar a cabo la quinta fase del Proyecto de la Marina, también se contempla destinar una partida para el estudio del aparcamiento de la calle Donostia, etc.

En el tema del empleo, dice que le gustaría hacer una reflexión previa y que hay que ser lo más realista posible; añade que desde el Ayuntamiento se puede intentar mejorar el tema del empleo en la ciudad, pero que no se pueden lanzar mensajes grandilocuentes para no crear falsas expectativas. Hay que ser conscientes de la capacidad y de las competencias que tiene el Ayuntamiento en este tema. En lo que respecta a la aportación que va a hacer el Ayuntamiento en el 2014 a las políticas de empleo, se destinarán directamente al empleo 700.000 euros. Los elementos centrales serán Hondarribia Abian y Bidasoa Bizirik, pero también habrá proyectos como la rehabilitación de edificios, las subvenciones para la rehabilitación de edificios o el proyecto de Zubieta.

Cita también el Plan de Rehabilitación del Casco Histórico, es decir, la apertura de locales destinados al comercio, siendo el objetivo destinar subvenciones a mejoras de locales y a los que vayan a abrir comercios en el Casco Viejo. De esta manera

sustatuko da; lokalak hobetu eta mantentzeko obrek, gainera, bertako gremioei lana emango diete.

Udalan enplegua sustatzeari dagokionez, 31 langile kontratatuko dira (20 TAOrako, 7 itsasertza garbitzeko, eta 4 Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu duen enplegurako programa bereziaren bidez). 31 lanpostu horiek udal plantila arruntaren %40 da, ondorioz Udalak egingo duen ahalegina aipatzekoa da.

Era berean, aipatzekoa da Agroaldeari buruzko gaia, izan ere hiru enpresa berri sortuko dira baratx ekologikoarekin lotura dutenak.

Gogoratu behar da hiriko eraikin zaharrenetan egiten ari diren ikuskatze lanak direla-eta (Eraikinen Ikuskapen Teknikoak), jabeek eraikin horiek birgaitzeko obrak egin beharko dituztela, eta asmoa bizilagun horiek obrak egitera animatzea dela. Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza lerro bat du martxan, eta Udalaren nahia diru-laguntza lerro horri bertako Udal diru-laguntza batzuekin laguntzea da.

Ondareari dagokionez esan du denek ez dutela ondareari buruz ikuspegi bera, eta Fundazioa ez dela helburu bat, tresna bat baizik. Fundazioak bere bigarren urteari egingo dio aurre, eta bere aurrekontua asko handitu da (272.000 euro), baina berez Fundazioa beharrezkoa zelako sortu zen, izan ere nahitaezkoa zen Kultura eta Ondarea zuzenean kudeatzea. Bere ustez Fundazioaren figura arina da zenbait kudeaketa lan egiteko, eta esan du Arma Plazarako proposatutako helburuak betetzen ari direla, batez ere bisita gidatuen gaia, Arma Plazan eskaintako arreta zerbitzuak, eta eskaintzen diren produktuak. Gainera, aurrean Ondarearen Foroa jarri da abian, eta horretan argi geratu da Fundazioaren beharra zegoela.

Azken batean, 2014 urterako 272.000 euroko aurrekontua proposatzen da, kultur zeinu-hizkuntza

se revitalizará el casco con nuevos comercios y se impulsará el empleo; las obras de mejora y mantenimiento de locales también dará empleo a los gremios locales.

En lo que respecta a fomento de empleo directo del Ayuntamiento, se contratará a 31 empleados (20 de la OTA, 7 empleos a través de la limpieza del litoral y 4 empleos a través del programa especial de empleo que ha publicado la Diputación Foral de Gipuzkoa). Estos 31 empleos suponen el 40% de la plantilla ordinaria municipal, por lo tanto, el esfuerzo que va a hacer el Ayuntamiento sería de destacar.

También se tendría que destacar el tema de Agroaldea, pues se van a generar tres nuevas empresas relacionadas con la huerta ecológica.

Cabe recordar que a raíz de las inspecciones que se están realizando en los edificios más antiguos de la ciudad, las Inspecciones Técnicas de Edificios, los propietarios van a tener que realizar obras de rehabilitación en esos edificios, y la idea es la de animar a esos vecinos a que realicen esas obras. El Gobierno Vasco tiene puesta en marcha una línea de subvenciones y la idea que tiene el Ayuntamiento es la de acompañar esa línea de subvenciones con unas propias municipales.

En lo referente al patrimonio, dice que no todos comparten la misma visión del patrimonio y que la Fundación no es un objetivo, sino una herramienta. La Fundación va a afrontar su segundo año y el presupuesto de la misma ha ascendido notablemente (272.000 euros), pero su creación se debió a una necesidad, pues era imprescindible la gestión directa de la Cultura y el Patrimonio. Considera que la figura de la Fundación es una figura ágil para algunos tipos de gestión y añade que los objetivos propuestos para Arma Plaza se están cumpliendo, sobre todo en el tema de las visitas guiadas, los servicios de atención prestados en Arma Plaza y los productos que se ofertan. Además, este año se ha puesto en marcha el proyecto Foro de los Patrimonios y en ello sí que ha quedado patente la necesidad que había de la existencia de la Fundación.

En definitiva, para el año 2014 se plantea un presupuesto de 272.000 para la mejora de la

hobetzeko, Mariñel itsasontziaren matentze lanekin jarraitzeko, Constantino Virto jaunaren Arrantzaleak liburua bigarren aldiz argitaratzeko, Alde Zaharrerako eta Guadalupeko Gotorlekurako bisita gidatuak antolatzeko, eta Portuari eta San Pedro kaleari buruzko argazki erakusketa bat antolatzeko (behin San Pedro kaleko obrak amaitzen direnean).

2014 urterako helburu nagusia Ondareen Foroaren bigarren ekitaldia burutzea da. Lehendabiziko ekitaldia oso onuragarria izan zen udalerrientzat, eta bigarren ekitaldi honen asmoa udalerrria eta bere ondarea nazioartean hedatzea da. Katalunia, Puerto Rico, Kolonbia eta Panamako unibertsitateekin harremanetan jarri dira, eta Foroaren bigarren ekitaldian unibertsitate horietako ordezkariak egongo dira. Fundazioaren asmoa San Nikolas baluartearen proiektua burutzea eta erakundeekin Baluarte lehenbailehen berreskuratzeko bilerak egitea da. Bere ustez Fundazioak hasitako bidea luzea da, eta nahi luke denek parte hartzea bide horretan.

Aurrekontuaren balorazioarekin amaitzeko, Alkate jaunak aitortzen du aurrekontuak hobetu litezkeela, baina bere ustez aurrekontuak Udalaren egoera ekonomikoaren eta esku artean dituzten proiektuen ezagutzaren emaitza dira. Esan du Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza alorrek, aurreko urteetan bezala, beharrezko ekarpen ekonomiko guztia izango dutela behar denean, nahiz eta ez dagoen aurrekontuetan jasota. Horrez gain esan du aurrekontuaren oinarria gastu arruntari atxikitzea dela, eta gastu arrunta bere horretan mantentzeko gauza ez badira, ezin izango zaiola orain arte lortutako orekari eutsi. Esan du pertsonaleko gastuek bere horretan jarraituko dutela, eta Udalaren aurrekontu orokorra asko jaitsi dela, 6 miloi gutxiago sartu baitira.

Bere hizketaldia amaitzeko, Alkate jaunak bi balorazio egin ditu: Lehenengoa, aurreko urteen aldean aurrekontua handitu egin dela, eta bigarrena, krisiaren unean Hondarribiak ez zuela zorrik, eta

señalética cultural, continuación de los trabajos de mantenimiento del barco Mariñel, publicación de la segunda edición del libro Arrantzaleak de D. Constantino Virto, organización de visitas guiadas a la Parte Vieja y al Fuerte de Guadalupe, organización de una exposición en relación a la Marina y a la calle San Pedro al término de las obras de esta última.

El objetivo principal para el año 2014 será llevar a cabo la segunda edición del Foro de los Patrimonios; la primera edición resultó muy beneficiosa para el municipio y en esta segunda edición lo que se pretende es iniciar el camino hacia la internalización del municipio y su patrimonio. Se han entablado relaciones con las universidades de Cataluña, Puerto Rico, Colombia y Panama, y en la segunda edición del Foro estarán presentes representantes de todas estas universidades. El objetivo de la Fundación es llevar a cabo el proyecto del Baluarte de San Nicolás y organizar reuniones con entidades para que la recuperación del Baluarte se lleve a cabo lo antes posible. Considera que al camino iniciado por la Fundación le queda mucho recorrido y desea que ese camino sea compartido y recorrido por todos a la vez.

Para terminar con la valoración del Presupuesto, el Sr. Alcalde reconoce que los presupuestos pueden ser mejorables, pero entiende que es consecuencia del conocimiento que se tiene de la situación económica del Ayuntamiento y de los proyectos que se tienen entre manos y de la capacidad para llevarlos a cabo. Añade que las áreas de Servicios Sociales y Educación, como en los últimos años, tendrán toda la aportación económica necesaria en el momento que sea necesario, aunque no estén recogidos en los presupuestos. También dice que la contención del gasto corriente sigue siendo la base del presupuesto y que si no se puede ser capaz de mantener el gasto corriente, no se podrá mantener el equilibrio que se ha conseguido hasta ahora. Añade que los gastos de personal se mantienen y que el presupuesto general del Ayuntamiento ha bajado considerablemente debido a los 6 millones menos que se han dejado de ingresar.

Para concluir con su intervención, el Sr. Alcalde realiza dos valoraciones: la primera, que en comparación con los últimos años, el presupuesto ha aumentado y la segunda, que en el inicio de la crisis

espero duela krisitik ere zorrik gabe ateratzea.

Alvarez jaunak hartu du hitza, eta esan du tamalez ez dagoela Alkate jaunak azaldutako zenbait punturekin ados. Bere ustez indar handirik gabeko aurrekontua da, eta esan du Alkate jaunak deskribatutako aurrekontua ez dela egiazkoa, izan ere berak 2 milioi euroko inbertsioez hitz egin du, eta egiazko inbertsioak 500.000 eurokoak dira.

Alvarez jaunak esan du 1936ko martxoaren 6ko Batzar Orokorrean langabetu batzar batek udalbatzari agiri bat proposatu ziola, eta bertan esaten zutela guztientzat lana nahi zutela, eta era berean bertako langabetuen Erregistro Ofiziala sortzea, enplegua Hondarribian egiten ziren obra guztietan, langabetuei maizter zerga kentzea, ura eta argia ematea, osasun txartela dohainik, eta 1936ko abenduko bigarren zatian itsasargi errepidean egindako lanak ordaintzea. Esan du XX. mendean zehar garai hartako herritarrek egindako aldarrikapen gehienak gaur egungo ongizate gizartean jasota daudela, gizarte zibilak egindako borroka eta askatasunen ondorioz; garai hartan herri mailan egindako aldarrikapen asko gaur egun errealitatea dira, baina une hauetan kolokan daude, eta krisi ekonomikoaren garai honetan beharrezkoa da gogoan izatea jakiteko nondik gatozen eta zer den beharrezkoa gizarte honek solidarioa izaten jarraitzeko, kasu honetan hondarribiarrekin.

Alvarez jaunaren iritziz Hondarribiko Udalak nolabaiteko laguntza eman behar die familia askori jasaten ari diren langabezi egoera dela-eta, izan ere lan prekarietate egoera larrian daude, besteak beste krisi ekonomiko finantzarioagatik, eta lan erreforma gizartea suntsiten ari delako. Esan du Hondarribiak zerbitzu sektore sendoa duela, eta ziur dagoela oraindik gehiago eta hobeto garatu ahal dela. Horrez gain, esan du lehen sektorea Hondarribiko beste sektore indartsu bat dela: arrantza, eta gero eta ekologikoagoa den nekazaritza.

Hondarribia no tenía deudas y que espera salir de la crisis también sin deudas.

Toma la palabra el Sr. Alvarez, el cual lamenta disentir de algunos puntos expuestos por el Sr. Alcalde. Considera que se trata de un presupuesto sin excesiva fuerza y añade que el presupuesto que ha descrito el Sr. Alcalde no es real, puesto que él ha hablado de inversiones de 2 millones de euros, cuando las inversiones reales ascienden a 500.000 euros.

El Sr. Alvarez cita que en la Asamblea General de 6 de marzo de 1936, una asamblea de parados propuso al consistorio un documento el cual decía que querían trabajo para todos; la creación de un Registro Oficial del paro local, empleo en todas las obras que se llevaran a cabo en Hondarribia de parados del municipio, exención del impuesto del inquilinato, luz y agua para los parados, cartilla gratuita de residencia sanitaria, el pago a los parados de los trabajos de la carretera del faro en la segunda mitad del mes de diciembre de 1936. Añade que el actual estado de bienestar recoge que la mayoría de las reivindicaciones de los ciudadanos de la época conseguidas a lo largo del siglo XX gracias a las libertades y a las diferentes luchas realizadas por la sociedad civil, muchas de las cosas que entonces eran reivindicaciones de las clases populares hoy son una realidad, pero que en estos momentos puntuales se tambalean, y en estos momentos de crisis económica son necesarias recordar para saber de dónde venimos y lo que es imprescindible mantener para que la sociedad siga siendo solidaria con el conjuntos de colectivos que son, en este caso, los ciudadanos de Hondarribia.

El Sr. Alvarez considera que el Ayuntamiento de Hondarribia tiene que aportar su grano de arena a la situación del paro en el que se encuentran muchas familias, además de una situación de precariedad laboral fruto, entre otras cosas, de la actual crisis económica-financiera donde la reforma laboral no está dejando títtere con cabeza. Añade que Hondarribia cuenta con un sector servicios muy potente y que existe la certeza de que puede desarrollarse todavía más y mejor. También dice que el sector primario es también otro de los potenciales de Hondarribia; la pesca extractiva y la agricultura cada vez más ecológica.

Hori dela-eta, aurrekontuek gero eta bidaia-orri dinamikoagoa izan behar dute Hondarribian une honetan giltzarri diren sektoreekin, besteak beste zerbitzu sektorearekin edo lehen sektorearekin.

Esan du funtsezkoa dela une oro modu solidarioan jokatzeko krisi egoera honetan beharrezko ongizate mailari eusteko zailtasun larriak dituzten kolektiboekin: langabetuekin, hipotekatuak egonik diru-sarrera galera duten eta hilabete amaierara iritsi ezin direnekin, eta berezki hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten gazte eta adinduekin.

Horrez gain, esan du langabetuei laguntza iraunkorra eman behar zaiela herriko alderdi ezberdinetan sustatzaileekin jarduerak egiteko, ekonomiako alor ezerdinetan, besteak beste kuturan, merkataritzan, zerbitzuetan, industrian, eta abarrear.

Tade Sozialistak esan du beharrezkoa dela aurrekontuetan lanbide zuzenaren alderdiak sendotzea, alde aurretik bidaia-orri bat diseinatu, kontuan izanda erakundeetatik une oro eskulan zuzenerako nahiz inbertsioetarako baliabideak ezartzen ari direla. Udalaren eta enpresa pribatuaren arteko lankidetzak funtsezkoa da denboran zehar iraunkorrak diren enplegu harrobi berriak ustiatzeko, eta aldi berean gaur egun harrapatuta dauden eta zerbitzu urriagoak dituzten eremuen berpiztea erraztu eta bultzatzeko. Aurrekontuan ez daude alokatzen laguntzeko partidak aurreikusita, Gobernu Taldeak norabide bakarreko hausnarketa egiten baitu, etxebizitza publikorako errolda kopuru mugatua jartzen duen aldetik; hau da, herriaren ezaugarriak direla-eta, alokairuak nahiz etxebizitzek duten kostu garestia dela-eta, gazteek beste herrietara joan behar dute, ezin baita argudio berarekin pentsatu. Logikoena da %50eko errekarua izanik etxebizitza hutsen kasuan, alokairurako bidea erraztea, Hondarribiko gazteak haien kontura bizitzen jartzeko kopuru bat jarritz. Hondarribiaren kasuan %50eko errekaruaren helburutako bat alokairua sustatzea da, Hondarribian alokairua behar duten familiei begira. Etxebiden zazpi etxebizitza daude alokatzeko, logikoaenez guztiak okupatuak, eta berez erroldan

Por todo ello considera que ahora más que nunca los presupuestos deben tener una hoja de ruta dinámica con los sectores que en estos momentos son claves en Hondarribia, como el sector servicios o el primer sector.

Añade que es fundamental tener una actitud permanente de solidaridad con los colectivos que en estos momentos de crisis tienen serias dificultades para poder mantener los niveles necesarios de bienestar, como personas desempleadas, personas que tienen problemas para llegar a fin de mes porque se encuentran atrapadas en una hipoteca con pérdidas de ingresos, fundamentalmente jóvenes y personas mayores que tienen dificultades para llegar a fin de mes.

Junto con ello, dice que se debe realizar una acción permanente en ayuda a las personas desempleadas para que puedan emprender actividades con promotores en diferentes actividades en la ciudad dentro de los diferentes ámbitos de la economía como la cultura, comercio, servicios, industria etc.

El Grupo Socialista plantea la necesidad de reforzar en los presupuestos los aspectos del empleo directo diseñando de antemano una hoja de ruta posible, teniendo en cuenta que desde las instituciones de forma permanente se están liberando recursos tanto para la mano de obra directa como para inversiones. La colaboración del Ayuntamiento con la empresa privada es fundamental para que se puedan explotar nuevos yacimientos de empleo sostenibles en el tiempo, además de facilitar e impulsar la regeneración de zonas que en estos momentos están atrapadas y que cuentan con menores servicios. En el presupuesto no se contemplan partidas para la ayuda de alquiler cuando por parte del Equipo de Gobierno se realiza una reflexión unidireccional en el sentido de establecer topes elevados de empadronamiento para la vivienda pública con el argumento de que dadas las circunstancias de la ciudad, por el elevado coste en alquiler como en compra, los jóvenes se tienen que trasladar a otras ciudades, pues no se puede pensar con el mismo argumento. Lo lógico es que habiendo establecido un recargo del 50 % favorezca el alquiler con una cantidad para la emancipación de los jóvenes de Hondarribia. Uno de los objetivos del recargo del 50 % es el de estimular el alquiler en Hondarribia para las familias que

errekargua ezartzeko azertu diren araubide berezi horretako etxe hutsak 2.000 izan dira.

Jarraitu du esanez inbertsioen atalean 487.025 euroko kopurua dagoela aurreikusita, eta aurreko urtean 829.000 eurokoa izan zela. Jaitsiera handi hori dela-eta, Alvarez jaunaren iritziz Udal honek irudimen ahalegina egin behar du, eta obra txikien egutegia egin behar du (gaur egun beharrezkoak baitira herrian), Hondarribian enpresa txikia indartze aldera.

Ondoren esan du enlegu-politika aktiboari dagokionez ez dagoela partida zehatzik, eta ez duela ulertzen nola egin ahal zaion aurre partida zehatzik ez duen aurrekontu bati, 2014 urtean zehar bestelako erakundeek haien aurrekontuetan kontratazio zuzenerako partida garrantzitsuak izanik.

Diru-sarreraren atalari dagokionez, aurkeztutako aurrekontua 2012 edo 2013 urteetako aurrekontuen parametro beren arabera eginak dago; haietan partidak, diru-sarrerak eta gastuak ez daude 2012 urteari behar bezala egokituta.

Horren atzetik esan du aurrekontu honen alderdietako bat Arma Plaza Fundazioaren hazkundera dela, eta erakunde horren egitura ez dagoela behar bezala sendotuta, eta formulak bilatu behar direla etorkizunean Fundazioaren eskumenetan eta jardunean arazorik ez izateko. Horrez gain, bere eskumenak zehaztu behar direla, estatutuetatik harantzago.

Azken batean, bere ustez aurrekontu hauek hobetu litezke, herritarren egiako arazoetara egokituz gero, eta horrekin, gainera herriaren funtzionamenduari eutsi eta egoera hobetu liteke.

Ondoren Alvarez jaunak PSE-EE(PSOE) Taldeak aurkeztutako emendakinak aurkeztu ditu:

necesitan el alquiler, en Etxebide hay siete viviendas para alquilar, lógicamente ocupadas todas ellas, cuando en el recargo que se ha trabajado sobre el censo han sido cerca de 2.000 viviendas vacías en ese régimen especial.

Continúa su intervención diciendo que en el capítulo de inversiones se contempla una cantidad de 487.025 euros, cuando el año anterior fue de 829.000 euros. Debido a esta sustancial bajada, el Sr. Alvarez considera que en la situación actual este Ayuntamiento debe realizar un esfuerzo de imaginación y realizar un calendario de obras menores, hoy necesarias en la ciudad, y reforzar la pequeña empresa de Hondarribia.

Continúa diciendo que en lo referente a la política activa de empleo, no hay partida concreta y no puede entender cómo se puede afrontar un presupuesto sin partida concreta cuando a lo largo del año 2014 las diferentes instituciones tienen en sus presupuestos partidas importantes para la contratación directa.

En relación al capítulo de ingresos, el presupuesto que se presenta está realizado sobre los mismos parámetros que los anteriores de 2012 o del 2013, donde las partidas, los ingresos y gastos no están lo suficientemente ajustados a la medida del año 2012.

Continúa diciendo que uno de los aspectos de este presupuesto es el fuerte crecimiento de la Fundación Arma Plaza, donde la estructura de la propia organización no está del todo consolidada y donde es necesario buscar fórmulas para que en el futuro no haya problemas de competencia y de funcionamiento de la propia fundación, además de definir sus competencias más allá de los estatutos.

En definitiva, considera que se trata de unos presupuestos que se pueden mejorar sustancialmente adecuándolos a los problemas reales del ciudadano, además de mantener y mejorar el funcionamiento de la ciudad.

A continuación el Sr. Alvarez procede a explicar las enmiendas que ha presentado el Grupo Municipal PSE-EE (PSOE):

.- 8271 SE zk. duen emendakina: Mugikortasuna: 25.000 euroko partida proposatzen du. Bere ustez Hondarribiak garraio publikoaren bidez elkartzeko beharra du. Adibide gisa Hendaia aipatu du; han bi minibus daude herri osoan zehar dabiltzanak, ibilgailua hartu nahi ez duten herritarren zati bati zerbitzua emanaz. Esan du proposatutakoa burutzeko Gobernu Taldeari proposamen bat egin diola, 22 geltoki dituen (autobusen ohiko geltokiak gehi existitzen ez diren beste zenbait).

.- 8272 SE zk. duen emendakina: Zaldunborda-Txiplao-Zubieta eremuaren azterketa Hondarribiko industria-gunea izateko. 10.000 euroko partida proposatu du. Gogorarazi du Zubietako gairako 2013 urtean 25.000 euroko aurrekontua zegoela bideragarritasun azterketa egiteko. Alvarez jaunak esan du ez dakiela gaia gauzatzen ari den ala ez. Bestetik, esan du hor dagoela Zaldunbordari buruzko gaia ere, oraindik Plan Orokorren baitan. Esan du Txiplaoko eremua motz geratu dela, eta industria plan bat diseinatu beharko litzatekeela, batez ere ekile askori ez litzaiekeelako gaizki etorriko lokal batzuk modu onean izatea.

